# SANTA AGEDA BEZPERA-OTSAILAK 4

Datorren astelehenean, Otsailak 4, Santa Ageda Bezpera dugu. Hori dela eta, arratsaldeko 18:30tan, San Juan Plazan elkartuko gara bere ohorezko koplak abesteko. Animatu zaitezte baserritarraz janztera, hartu makila, kopla papera eta etorri gurekin ospatzera.

Bukatzean, Berdintasuna elkartean merienda egongo da, parte hartu dugun guztiontzat.

Ibilbidea: San juan Plaza, Virgen Blanca, Ezpeleta, S. Francisco, Ferial, El Portal, Navarro etxea, S. Esteban, Berdintasuna

El próximo lunes, 4 de febrero, se celebra la víspera de Santa Águeda y por eso nos vamos a juntar a las 18:30 en la plaza San Juan para cantar coplas en su honor. Anímate a ponerte el traje de casero, coge la makila, la copla  en papel y ven a celebrarlo con nosotros.

Al finalizar habrá merienda para todas aquellas personas que hayan participado en la sociedad Berdintasuna.

Recorrido: San juan Plaza, Virgen Blanca, Ezpeleta, S. Francisco, Ferial, El Portal, Navarro etxea, S. Esteban, Berdintasuna

**1**

*Zorion etxe hontako denoi*
*oles egitera gatoz*
*Aterik ate ohitura zaharra*
*aurten berritzeko asmoz.*
*Ez gaude oso aberats diruz,*
*Ez ta ere oinetakoz,*
*baina eztarriz sano gabiltza*
*ta kanta nahi degu gogoz.*

— — —

**2**

*Santa Ageda bezpera dugu*
*Euskal Herriko eguna*
*etxe guztiak kantuz pozteko*
*aukeratua duguna.*
*Santa maitea gaur hartu dugu*
*gure bideko laguna,* __
*haren laguntzaz bete gentzake*
*egun hontako jarduna.*

— — —

**3**

*Mendi tontorrak elurrez zuri*
*atai aldean laiotza*
*etxe hontako nagusi jaunak*
*urrezkoa du bihotza*
*Santa Agedak kendu digu gaur*
*eskean hasteko lotsa*
*dirurik ez bada berdin zaigu*
*gizendutako bildotsa*

— — —

**4**

*Santa Ageda aitzakiakin*
*elkartu gara kuadrila*
*aurrera goaz eta nahi duna*
*gurekin etor dadila*
*ohitura zaharrak berpiztea*
*ez da inorentzat kalte*
*gaizki esanak barkatu eta*
*hurrengo urte bitarte*

**1** (berriro)   **EEUUPP!!!**

**Antolatzaile: Berdintasuna eta Zumedia guraso elkartea**

**Laguntzaile: Uharteko Udala**